

## **Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia itxita egongo da hilaren 21a arte, inbentarioa egingo dutelako**

DONOSTIA, 8 (EUROPA PRESS) Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia itxita egongo da gaurtik hilaren 21era bitartean, publikoa hilabete honetan gutxiago joaten dela aprobetxatuz, arduradunek urteroko inbentarioa egingo dutelako, Gipuzkoako Foru Aldundiko iturriek jakinarazi dutenez. Bibliotekak 200.000 liburu ditu eta joan den urtean zehar milioi erdi pertsona igaro ziren bere irakurketa-geletatik. Zentroa abuztuaren 21ean irekiko ditu berriro ateak, ohiko ordutegian, hau da, goizeko 8,30etatik arratsaldeko 20,30ak arte astelehenetik ostiralera, eta goizeko 8,30etatik arratsaldeko 14,00ak arte larunbatetan. Hala ere, foru erakundeak adierazi du inbentarioa egiten ari diren bitartean irekita egongo direla Koldo Mitxelena Kulturunea momentu honetan eskaintzen ari den bi erakusketak. Horrela, "Ganbara" espazioan, zen meditazioan inspiratuta Alfredo Bikondoak azken bost urteetan eginiko lanak daude ikusgai. Beste erakusketa sotoko espazioan dago, "Glaskultur. Zer gertatu zen gardentasunarekin?" izenburuarekin; Koldo Mitxelenaren eta Lleidako La Panera Arte Zentroaren arteko koprodukzioa da. Erakusketak asteartetik larunbatera bitartean daude ikusgai, 10,30etatik 14,00ak arte eta 16,00etatik 20,30ak arte.